



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

IBARRAKO UDALAREN ETA GALTZAUNDI EUSKARA ELKARTEA-ren ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Ibarrako udaletxean, 2021eko uztailaren 15ean

ELKARTURIK

Alde batetik, [redacted] Ibarrako Udaleko alkate-lehendakaria, Ibarrako Udaleko Idazkariak, [redacted] lagunduta.

Eta bestetik, [redacted] jauna, NAN [redacted] duena, Galtzaundi euskara taldearen lehendakaria. Elkaratearen egoitza soziala: Tolosako Nafarroa etorbidea, 6-behean duena; IFKa: G20371456.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Ibarrako Udalaren izenean eta ordezkaritza, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Galtzaundi euskara taldearen izenean eta ordezkaritza, lehendakari gisa, 2019ko maiatzaren 9ko batzar orokorrak hartutako erabakiaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I.- Galtzaundi euskara taldea entitateak 2021eko uztailaren 2an udal honetan aurkeztutako idatziaren bidez —sarrera erregistroko zenbakia 1836—, dirulaguntza proiektuen eta jardueren memoria aurkeztu zuela, Ibarrako Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak xedatutakoarekin bat etorri. Memoria honek gutxi gorabehera 18.000 euroko aurrekontua du, dirulaguntza eskaeraren helburu diren ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da. Jarduerak:

A.- Ibarra mailakoak:

1. Euskarazko komunitatea aktibatzea eta indartzea:
 - 1.1. Ibarrako euskara batzordea dinamizatzea eta koordinatzea.
 - 1.2. Ibarrako oinarri soziala zabaltzea, dinamizatzea.
2. Euskaraldia eta Euskararen nazioarteko eguna 2021



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

3. Euskara merkataritzara kanpaina
4. Herriko gazteen aisia eta sormena lantzea (Sormenetik 2.0)
5. Ibarra-Galtzako mik komiki lehiaketa
6. Ibarra kale-erabilera neurketa
7. Mintzalaguna

B.- Eskualde mailakoak

1. Euskalduntze-alfabetatze kanpaina.
2. Tolosaldeko sortzaileen katalogoa eta Tolosapedia proiektua
3. Eskualdeko hizkuntza politikaren lanketa.

II.- Entitateak egunean dituela zerga-betebehar guztiak eta egunean dagoela Gizarte Segurantzarekin.

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, dirulaguntzei buruzkoak, bere 13. artikuluko 2. eta 3. zatietan dirulaguntzak jasotzeko adierazitako debeku-ausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritik, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den dirulaguntzaren xede eta helbururekin.

V.- Ibarra Udalaren 2021ko udal aurrekontuan, 10.335.004.811.11. 2021 partida agertzen dela, 18.000 euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen dirulaguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerririk, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: **kulturaren sustapena**. Eskumen hau udalaren berezko eskumenen artean dago eta Galtzaundi euskara taldea-k Ibarra herrian euskararen normalizazio ahalbidetzea eta erabilgarritasuna sustatzea ditu helburu nagusi gisa eta Ibarra herria eskualde mailako euskalgintza proiektuan barneratuko du herritarren parte-hartzea eta genero berdintasunaren alde lan eginez komunikazio hedabide bezala.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen ditu; horien artean 17.20



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

artikuluan **kultura sustatzeko eskumena** adierazten du eta 17.26 artikuluan aldiz **euskara sustatzeko politikak egiteko eskumena** adierazten da... Horretarako, euskal administrazio publikoek, koordinazioko eta lankidetzako, gizarte-ekimenaren sustapeneko eta baliabideen aprobetxamendu osoko, arrazional eta eraginkorreko printzipioak aplikatuz, egoki gertatzen denetan, gizarte-ekimen pribatuak garatzen dituen gaitasunak eta baliabideak aprobetxatzen ahaleginduko dira.

VII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Ibarra Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra.

VIII.- Aipatu dirulaguntza hau Ibarra udalak 2020ko otsailaren 18an ez ohiko udalbatzan onartutako Ibarra Udaleko dirulaguntza plan estrategikoan (2020-2023) jasota dago (GAO 38. zbk), dirulaguntza izendun moduan, eta beraz, ez da norgehiagoka prozesurik egingo dirulaguntza emateko.

IX.- 298/2019 alkate dekretuari jarraiki, dirulaguntzaren hitzarmena sinatzeko eta dirulaguntza emateko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzordea izango da.

X.- Hori dela eta, 2021eko uztailaren 15ean gauzatutako Tokiko Gobernu Batzordeak Galtzaundi Euskara Taldeari 18.000 euroko dirulaguntza emateko hitzarmena onartzea eta sinatzea erabaki zuen.

XI.- Aipatu dirulaguntza hau dirulaguntzen datu base nazionalean (BDNS) argitara emango da.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena.- Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Ibarra Udalaren eta GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA-ren (G20371456) arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Ibarra udalerrriaren barruan, berau baita une honetan euskalgintza aktibatzekeo Ibarra dagoen eragile bakarra, eta ez dagoelako euskara erdigunean jarrita duen beste gizarte eragilerik Ibarra.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bigarrena.- Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera eta gutxi gorabeherako kostu hauek sartzen dira:

A.- Ibarra mailakoak (14.400 euroko aurrekontuarekin)

1. Euskarazko komunitatea aktibatzea eta indartzea:
 - 1.1. Ibarra euskara batzordea dinamizatzea eta koordinatzea.
 - 1.2. Ibarra oinarri soziala zabaltzea, dinamizatzea.
2. Euskaraldia eta Euskararen nazioarteko eguna 2021
4. Euskara merkataritzara kanpaina.
5. Herriko gazteen aisia eta sormena lantzea (Sormenetik 2.0).
6. Ibarra-Galtzako komiki lehiaketa.
7. Ibarra kale-erabilera neurketa.
8. Mintzalaguna.

B.- Eskualde mailakoak (3.600 euroko aurrekontuarekin)

1. Euskalduntze-alfabetatze kanpaina.
2. Tolosaldeko sortzaileen katalogoa eta Tolosapedia proiektua
3. Eskualdeko hizkuntza politikaren lanketa.

Hirugarrena.- Diruz lagundutako jardueren finantzazioa.

Ibarra Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan dirulaguntza baten bidez. 2021ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek **18.000 eurokoak** izango dira, 10.335.00.481.11. 2021 udal aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste erakunde batzuen dirulaguntzak ere jaso ditzake.

Entitate onuradunak aurkeztu duen diruz lagundu beharreko jardueraren aurrekontua, edo hari aurkeztu ondoren egindako aldaketak, erreferentzia gisa erabiliko dira dirulaguntzaren zenbatekoaren azken zehaztapena egiteko, zenbateko hori proiektu edo jardueraren azken kostuaren portzentaje bat bezala kalkulatu da eta inoiz ezingo du emandako zenbatekoa gainditu. Kasu horretan, Ibarra udalak egindako balizko finantzazioaren soberakina kalkulatu da ekarpen horrek kostu osoaren aldean duen portzentajea erreferentzia gisa harturik.

Dirulaguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionaletatik,



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria

Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden beste dirulaguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakena.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

b) Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie dirulaguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako dirulaguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Ibarra udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako dirulaguntzaren mugaraino.

Dirulaguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena.- Indarraldia.

Hitzarmen honek 2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak. Emandako dirulaguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Euskara eta Hezkuntza departamentuari, Ibarra udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorrak xedatutakoaren arabera III. kapituluan

Bosgarrena.- Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.

Dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Ibarra udalaren ordenantza orokorraren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Bakar-bakarrik onartuko dira dirulaguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Seigarrena.- Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Ibarra Udalaren VIII kapituluaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren aurreikusita dagoenaren arabera.

Dirulaguntza justifikatzeko, hitzarmenean jasota dauden lerro bakoitzari lotutako justifikazio ekonomikoaren datuak aurkeztu beharko dira lerroka eta gastu diruz lagungarriaren adina, horretarako, jarduerak bere osotasunean dituen gastuen zehaztasuna, eta Ibarra udalean jardura horrek duen %aren arteko erlazioa frogatuta geratu beharko da.

Dirulaguntza justifikatuko da «justifikatzeko kontua ordainagiriak aurkeztuta» izeneko modalitateaz, oro har, honako dokumentazio hau duela:

- a) Jarduera-memoria bat, dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzeko. Memoria horretan adieraziko da zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren, eta, ahal den neurrian, datu guztiak sexuen arabera banatuta aurkeztuko dira.
- b) Egindako jardueren kostua justifikatzeko 1. eranskina behar den bezala betea.

Zazpigarrena.- Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea.

Dirulaguntzen justifikazioa aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 31n amaituko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Zortzigarrena.- Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, oro har, dirulaguntzaren onuradunak justifikazioa aurkeztu eta organo eskudunak onartu ondoren, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da: lehen organo eskudunaren erabakiaren jakinarazpenarekin batera eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela ziurtatzen duten agiriak aurkeztutakoan, honen zenbatekoa dirulaguntzaren % 70a izango da, eta gainontzeko % 30a, egindako gastua justifikatzen duen kontua aurkeztutakoan.

Betebeharreko baldintza izango da Ibarra Udalak aurretik emandako dirulaguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste dirulaguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Horretaz gain, ikusirik COVID-19k sortutako aldaketak euskara arloko ekimenetan, behin kitapena egiten denean jasotako aurrekontutik zein gastu egin diren eta zein ez zehaztuko du interesatuak dagokion doikuntza egin ahal izateko.

Ordainketak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Bederatzigarrena.- Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Ibarra udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Ibarra Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Hamargarrena.-Euskararen erabilpena.

Ahozko informazioa (megafonia...) eta idatzizkoa (kartelak, oharrak...) euskaraz edo ele bitan egingo dira, eta azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda, Ibarra Udalean eta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko udal ordenantzak xedatzen duen bezala. Euskaraz egingo dira ekintzaren izaerak edo hartzaileen berezitasunek hala eskatzen badute.

Hamaikagarrena.- Genero berdintasuna.

Dirulaguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamabigarrena.- Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamahirugarrena.- Kontrol eta jarraipena.

Hitzarmen honen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei. Finantza kontrola Ibarra Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 48. eta 49. artikuluetan xedatutakoari jarraiki egingo da.

Hitzarmen honen onuradunak behartuta daude kontrol finantzarioa egiten duten funtzionarioei lankidetzara eskaintzera eta horretarako eskatzen zaizkien agiriak eta beharrezko informazioa eskuratuko diete.

Jarraipen eta kontrol prozesu horretan hitzarmen honetako baldintzak ez direla betetzen ikusten bada, beharrezko neurriak hartuko dira diru itzulketa egin dadin, eta kasua bada, emandako diru-laguntza kobratzeko eskubidea galduko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hamalauugarrena.- Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamabosgarrena.- Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamaseigarrena.- Erantzukizunpeko adierazpena.

Ibarrako Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren 6 artikuluan xedatutakoaren arabera, DLoren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hamazazpigarrena.- Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Ibarrako Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorra.

Hemezortzigarrena.- Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplika daitekeen guztian, beteko dutela.

Hemeretzigarrena.- Baimentzea.

Entitate onuradunak espresuki ematen dio baimena Ibarrako Udalari, edozein momentutan eta edozein Administrazio edo Erakunde Publikotatik zuzenean eskura ditzan hitzarmen honen bitartez eskatutako dirulaguntza lortzeko ezinbesteko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Hogeigarrena.- Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmenaren hiru ale izenpetzen dituzte bi aldeek, nire aurrean eta goiburuan aipatutako toki eta egunean; Idazkaria naizen honek fede ematen dut

ALKATEA



GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA





IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

1. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO EKONOMIKORAKO EREDUA

A) SARREREN JUSTIFIKAZIOA

Azalpena	kopurua
SARRERAK:	
Proiektuaren berezko diru -sarrerak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Erakunde pribatuen dirulaguntzak: _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Ibarrako Udala dirulaguntzak: (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza (Onartu den guztia ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Eusko Jaurlaritzaren laguntza (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste erakunde publiko baten laguntza _____ (Onartu den guztia, ez bakarrik ordaindutakoa)	€
Beste batzu: _____	€
GUZTIRA SARRERAK	€
SARRERA AURREIKUSPEN HONETATIK ZE KOPURU DAGOEN ORAINDIK JASOTZEKO	€
- Ibarrako udala	
- Gainontzekoak	

B) GASTUEN JUSTIFIKAZIOA

Taula orokorra (Adibidea)

Azalpena	kopurua
GASTUAK DENERA, MOTAREN ARABERA	



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Zeharkako gastuak	
GASTUAK GUZTIRA	

Justifikatutako gastuak zehaztuta (ADIBIDEA)

AGIRI MOTA TIPO DOCUMENT O	ZK .	DATA	IGORLEA EDO JASOTZAILE A EMISOR O RECEPTOR	CIF / DNI	KONTZEPTUA	BEZ-a €	IRPF %	€
GUZTIRA								

ZEHARKAKO GASTUEN MEMORIA

Jaso bakoitzaren kopurua eta aurreko ataletan ezin sartu izanaren zergatia:

TAULAREN ARGIBIDEAK

Jarduerak eragindako gastuen zerrenda sailkatua betetzerakoan honako datu hauek zehaztu beharko dira:

1. Mota: Agiri mota: Nomina, Asistentzia ordainagiria, Beste administrazioko erreziboak, Faktura, gastu tiketa (20 euro arte), elkarteko tiketa, edo kilometrajea.
2. Zenbakia: Faktura edo tiketa bada
3. Data: kasu guztietan
4. Igorlea jarri behar da: Faktura, errezibo eta Tiketetan, horiek burutzen dituenak, eta Hartzailea jarri behar da nomina eta ordainagirietan, lana edo prestazioa burutu duen pertsona.

